



"Hitz-Enea" erakusketa

10.Juil - 15.Sep 2019

Cod. J20-19

Modalité:
En personne

Édition
2019

Type d'activité
Activité ouverte

Date
10.Juil - 15.Sep 2019

Location
Miramar Palace

Langues
Basque

Comité d'organisation



Fundación
BBVA



Description

Nor bizi izan zen Azkaineko *Zapata Churienea*izeneko etxean? Nondik dator Alduden *Erremedio* etxe baten aurrealdean dagoen izena? Kolore berekoak direa Urruñako *Etche berdea* eta Garaziko *Etxe Berdea*?

Erantzunik ez duten galdera hauek agerian nahi ditu eman Euskal kultur erakundeak ekoiztu eta [Oskar Alegria](#) zinegileak asmatu erakusketa honek.

Horretarako, artistak bidaia bat egin du Ipar Euskal Herrian gaindi, Biarritzetik Altzürüküra, Senperetik Ortzaitzera, *Bero Etchea*, *Ixilixila*, *Ttattola*, *Oren Urdinak*, *Singalantenea*...izena duten etxeak bisitatuz.

Bidaia honek, gure artean hain aberatsa den onomastika, etxeen izenak aztertzen dituen zientzian barnera eramango gaitu.

Iraganetik, euskal kulturaren, etxeek eta etxeen izenek mapa zaharrenak ahoz egiteko balio izan dute, oraindik paperezko kartografiarik ez zegoenean ere. Lanbideak (*Arotzena*), izengoitiak (*Apalena*), toponimiak (*Arrotz bidea*) etxe bati izena jartzeko beti balio izan duten adibideetako batzuk, gaur egun, hobeto edo okerrago, abstraktuagoa den toponimia batekin ordezkatzeko ari dira: desioak (*Gure Nahia*), ametsak (*Ametchetan*), haizea (*Haizatua*), izarrak (*Goizeko Izarra*).

Objectifs

-